

Urko 69tan ezetz!

Santixauak ate joka ditugu eta dagoeneko hainbat elkartek egitarauan sartzeko ekintza-proposamena luzatu dute. Horien artean azpimarratzekoa da aurten lehengo aldiz egingo den Urko-69 igoera neurtua. Artarra Mendi Taldeak proposatuta, uztailaren 18an burutuko da proba bitxi hau. Bitxia, probaren irabazlea Urko mendira 69 minutan igotzen duena izango baita; gainontzeko guztiak, aurretik heltzen direnak zein denbora hau gainditzen dutenak deskalfikaturik izango dira.

Denbora honetan egitea ez da batere zaila, baina probaren koska erlojurik ez erabiltzea da. Beraz, erritmoa buruz hartu beharko da: azkar joaten denak motelago joan beharko du eta motel doanak, beharbada, apur bat arintxoago. Hau da, beraz, probaren ezaugarri nagusia eta baldintza hauetan edozeinek irabazi ahalko du: haur, gazte, heldu, nagusi, kirolari edota sekula mendira joan ez denak ere. Antolatzaileek Patxi plazan hartuko dute denbo-

ra eta gero puntan partaideak noiz sartuko diren zain egongo dira. Denbora bakarra da balioko duena, 69 minutu, eta zehatz-mehatz denbora honetan inor sartuko ez balitz, goitik gertuen ibili dena izango da irabazlea.

Izen ematea Patxi plazan, uztailaren 18an bertan, goizeko 10:00etan izango da eta euro bat balioko du. Irteera eman ostean parte-hartzaile bakoitzak erabaki beharko du nondik joango den eta bakoitzak, bere ustetan den erritmorik egokiena markatu beharko du. Urko puntatik 20 metrotara kontrola jarriko da eta hortik aurrera ezin izango da geldialdirik egin eta puntara banan-banan sartu beharko da. Irabazleak batutako diru guztia jasoko du.

Proba honen bitartez Artarraiko kideek giro ona sustatu nahi dute, giro ona, mendizaletasuna eta mendira joatea ez dela irabazi beharreko lasterketa, baizik eta gozatzeko egiten den gustuko ekintza. Eta zu... Urkora 69tan ezetz!

Artarra Mendi Taldea




Artarra mendi taldea

ARTARRAI MENDI TALDEAREN BUZOI BERRIA

Santa Ana auzoaren gainean, Urko mendia galean dagoen 406 metroko muinoak izena ematen dio Ermuko mendi taldeari. Izenak ondo adierazten duen bezala artea eta harria dira bertan nagusi.

Aspalditxo jarritako buzoia apurtuta zegoenez, ekainean buzoia berriaren kokapen ekintza burutu du taldeak, mendi-tontor txartelak jasotzeko etxetxo bat jarri. Ermuko jarduera ekonomikoan hain zabaldua dagoen automobilgintzaren omenez, piolet bat puntan duen 'amortiguadore' itxurako figura jarri da.

Lehenengo buzoia, Jose Felix Igartuak egindakoa, 70ko hamarkadan jarri zen txistu eta dantza giroan. Ondoren 1997an berriro zen; beraz, hau hirugarren ekitaldia izan dugu. Ea errespetatzen dugun eta luza-roan irauten duen.



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)



LEIRE MAYORA PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



MUSIKA
ESKOLA

- | | |
|----------------------|--------------|
| - Akordeoia | - Klarinetea |
| - Biolina | - Panderoa |
| - Biolontxelo | - Perkusioa |
| - Bonbardino | - Pianoa |
| - Flauta | - Saxofoia |
| - Kantua | - Trikitrixa |
| - Gitarra | - Tronboia |
| - Gitarra elektrikoa | - Tronpeta |
| - Gitarra baxua | - Txistua |
| - Lengoaia musikala | |

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com